## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### Zk-5784

EBAZPENA, 2002ko irailaren 19koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko unibertsitateko idazkari nagusiarena, Estatutuak egiteko Prozedurari buruzko Arautegia argitaratzeko Agindua emateko dena.

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak (aurrerantzean LOU) zehaztutakoari jarraituz, unibertsitateek Estatutuak egiteko prozedurari ekin behar izan diote. Izan ere, lege horretako bigarren xedapen iragankorrean honakoa dago jasota:

«Hautatutako Unibertsitate Klaustroak egingo ditu Estatutuak, eta Klaustroak berak erabakiko du zein izango den prozedura, bai eta gehiengoak nolakoak izango diren ere. Estutuak egiteko bederatzi hilabeteko epea dago, Klaustroa eretzen denetik kontatzen hasita.» (jatorrizkoa gaztelaniaz)

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Klaustroa 2002ko uztailaren 11n eratu zen, eta Klaustroak egun horretan bertan egindako bileran onartu zen Estatutuak egiteko prozedurari buruzko arautegia, hain zuzen ere I. eranskinean jasota dagoena.

Unibertsitateei buruzko Legea betetzeko bidean orain arte egin dugun bezalaxe, Estatutuak egiteko prozedura unibertsitateko beste prozedura batean oinarritu dugu; izan ere, Estatutuak aldatzeko Klaustroko araudian jasota zegoen eskemari jarraituko diogu (Gobernu Batzarrak, 2002ko martxoaren 13an egindako bileran, Estatutuak onartu bitartean horri eustea erabaki zuen).

Klaustroaren funtzionamendurako arautegiaren eskemaren arabera, Estatutuak erreformatzeko ekimenak izan dezaketen organoetako bat errektorea da, zeinak klaustrokide guztiei bidali beharko dien zirriborroa prestatuko duen. Klaustrokideek hamabost eguneko epea izango dute zuzenketak aurkezteko Klaustroko batzorde bati. Batzordeak zuzenketak aztertuko ditu, eta testuan sartzea erabaki dezake, edo bertan behera uztea gehiengo kalifikatuak horrela erabakitzen badu; testuan sartuko ez diren eta bertan behera utziko ez diren zuzenketak, berriz, Klaustroak eztabaidatuko ditu osoko bilkuran.

Estatutuak aldatzeak daukan garrantzia kontuan izanda, araudian zehaztuta dago bi talde eratu behar direla Unibertsitateko Klaustroarekin batera aritzeko eta guztien artean Estatutuak LOUra egokitzeko, Unibertsitatean azken hamazazpi urteotan indarren izan diren Estatutuetan antzemandako akatsak zuzentzeko, eta Euskal Herriko unibertsitate publikoa XXI. mendera egokitzeko, eta ez bakarrik teknologien arloko erron-

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

### N°-5784

RESOLUCIÓN de 19 de septiembre de 2002, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena la publicación del Reglamento sobre el Procedimiento para la Elaboración de Estatutos.

La Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades (en adelante LOU), ha obligado a las Universidades a iniciar un procedimiento de elaboración de Estatutos para ajustarse a sus preceptos. Así la Disposición Transitoria Segunda de ese cuerpo legal establece que:

«El Claustro Universitario elegido elaborará los Estatutos, de acuerdo con el procedimiento y con el régimen de mayorías que el mismo establezca, en el plazo máximo de nueve meses a partir de su constitución.»

El Claustro Universitario de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea se constituyó el día 11 de julio de 2002, y en esa misma sesión constitutiva procedió a la aprobación del texto reglamentario que figura en el Anexo I.

Tal y como ha venido actuando en toda las adaptaciones que la nueva Ley de Universidades está exigiendo, el procedimiento que se ha aprobado parte de otro ya conocido en el seno de la comunidad universitaria, ya que fundamentalmente se ha seguido el esquema que para la reforma estatutaria se incluía en el Reglamento del Claustro, que la Junta de Gobierno, en su sesión de 13 de marzo de 2002, decidió mantener en tanto en cuanto no se aprobaran los nuevos Estatutos.

Según el esquema del Reglamento de Funcionamiento del Claustro, uno de los posibles órganos que puede instar la reforma de los Estatutos es el Rector, que elabora un borrador que debe ser remitido a todos los miembros Claustrales. Estos en un plazo mínimo de 15 días pueden presentar enmiendas ante una Comisión del Claustro. Esa Comisión examina las enmiendas, pudiendo incorporarlas al texto, o rechazarlas por una mayoría cualificada, y aquellas que no hayan sido rechazadas ni incorporadas, pasarlas al pleno del Claustro para su debate.

Dada la trascendencia de la reforma, el Reglamento establece la existencia de dos órganos que junto con el Claustro Universitario, puedan llevar adelante la tarea que supone acomodar los Estatutos a la LOU, corregir los defectos que se han detectado durante los diecisiete años que los actuales Estatutos han regulado la vida universitaria, y además, introducir a la Universidad Pública Vasca en el siglo XXI, preparándola no sólo para

kei aurre egiteko, ezpada ikasleen eskari berriak asetzeko, beti ere kontuan izanda gaur egungo ikasleek prestakuntza iraunkorra dutela helburu.

Horrela, bada, prozedura aurrera emateko talde tekniko bat izango da, errektoreak izendatua eta Estatutuen lehenengo zirriborroa egingo duena. Ondoren, estatutuen batzordeak (Klaustroak aukeratua bere kideen artetik) egokitu egingo du Klaustroko kide guztiei zirriborroa aurkezteko, haiek zuzenketak egin ditzaten.

Bestalde, Estatuak egiteko egutegi bat ere badago, prozesuan talde bakoitzak noiz hartuko duen parte zehazteko. Era berean, egutegiarekin bermatu nahi da Estatutuak egiteko LOUn zehaztutako bederatzi hilabeteko epea beteko dela, Estatuak, LOUk ematen dizkion ahalmenen babesean, gara ditzakeen beste araudi batzuetan xedatutakoa gorabehera.

Hori guztia kontuan hartuta, eta ekainaren 29ko 19/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko denak, zehaztutakoaren babesean, honakoa hau

EBATZI DUT:

***Bakarra.***– Agindua ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak egiteko prozedurari buruzko arautegia argitaratzeko I. eranskinean jasotako moduan.

Leioa, 2002ko irailaren 19a.

Idazkari nagusia,
ANÍBAL HERNÁNDEZ MARTÍN.

## I ERANSKINA

### UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ESTATUTUAK EGITEKO PROZEDURARI BURUZKO ARAUTEGIA

### HITZAURREA

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak bigarren xedapen iragankorrean dioenez (aurrerantzean LOU), Klaustroak egin eta onartu behar ditu Estatutuak.

Klaustroak erabakiko du zein izango den Estatutuak egiteko prozedura, bai eta gehiengoak nolakoak izango diren ere. Estatutuak bederatzi hilabeteko epean

los retos tecnológicos que habrá de asumir, sino fundamentalmente, para dar una respuesta satisfactoria a las nuevas demandas de los estudiantes, sin olvidar la aparición de un nuevo tipo de alumno, interesado en la formación continua.

Así, el procedimiento contempla la existencia de una Ponencia Técnica, que designada por el Rector, elabore un primer texto de borrador, un esqueleto que la Comisión de elaboración de Estatutos, elegida por el Claustro de entre sus miembros, se encargará de moldear para poder presentar a todos los miembros claustrales un borrador sobre el que presentar enmiendas.

Así mismo, se incorpora al texto un calendario de actuaciones que tiene por finalidad establecer, previamente, los tiempos en los que se irán incorporando al proceso de elaboración de Estatutos los distintos agentes. Con este calendario se pretende, igualmente, tener el procedimiento concluido dentro de los nueve meses que otorga la LOU, a salvo de lo se disponga en posteriores desarrollos reglamentarios que lleve a cabo el Estado en virtud de las competencias que le reserva la LOU.

Por todo ello, y en virtud de lo dispuesto en la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco

RESUELVO:

***Único.***– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento sobre Procedimiento de Elaboración de Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, en los términos que figuran en el Anexo I.

En Leioa, a 19 de septiembre de 2002.

El Secretario General,
ANÍBAL HERNÁNDEZ MARTÍN.

## ANEXO I

### REGLAMENTO SOBRE PROCEDIMIENTO PARA LA ELABORACIÓN DE LOS ESTATUTOS DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### PREÁMBULO

La disposición Transitoria Segunda de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre de Universidades, en adelante LOU, encomienda la elaboración y aprobación de los Estatutos al Claustro.

Para la elaboración de los Estatutos debe ser ese Claustro quien decida el procedimiento a seguir, así como el régimen de mayorías. Los Estatutos deben elabo-

egingo dira (epea 2003ko apirilaren 11n bukatuko da), eta Autonomia Erkidegoaren lege-kontrola gainditu beharko dute ondoren.

Estatutuak aldatzeko aplikagarriak izan daitezkeen Klaustroko arautegian jasotako xedapenetan oinarritzen da proposatzen dugun prozedura.

Klaustroaren funtzionamendurako arautegiaren eskemaren arabera, Estatutuak erreformatzeko ekimena izan dezaketen organoetako bat errektorea da, zeinak klaustrokide guztiei bidali beharko dien zirriborroa prestatuko duen. Klaustrokideek hamabost eguneko epea izango dute zuzenketak aurkezteko Klaustroko batzorde bati. Batzordeak zuzenketak aztertuko ditu, eta testuan sartzea erabaki dezake, edo bertan behera uztea gehiengo kalifikatuak horrela erabakitzen badu; testuan sartuko ez diren eta bertan behera utziko ez diren zuzenketak, berriz, Klaustroak eztabaidatuko ditu osoko bilkuran.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak egin eta onartzeko prozedura eskema horri jarraiki egituratu da.

*1. artikulua.–* Estatutuak egiteko zereginean parte hartuko duten organoak

1.1.– Talde teknikoa

Taldeko burua errektorea izango da, edota berak izendatuko duen ordezkoa (klaustrokide izango diren unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionario doktoreen artetik aukeratutakoa). Taldea errektoreak berak nahi bezala izendatutako gutxienez beste sei lagunek osatuko dute, baina UPV / EHUko sektore guztiak eta hiru campusak egon beharko dira ordezkatuta.

Bi eginkizun hauek eraman beharko ditu aurrera organo teknikoak:

a) eginkizun aktiboa, Estatutuen lehen zirriborroa egin beharko baitu.

b) laguntza emateko eginkizuna Estatutuak egiteko prozesu osoan, txostenak igorriko baitizkie erabakiak hartuko dituzten organoei.

UPV / EHUko zerbitzu, atal eta organo guztiek laguntza eman beharko diote talde teknikoari.

1.2.– Estatutuen batzordea

Klaustrotik sortutako batzordea izango da, eta erabakiak hartuko ditu Estatutuak egiteko lehen fasean.

Batzordea hamabost kidek osatuko dute guztira, eta Klaustroko talde guztiek izan beharko dituzte ordezkariak bertan:

Unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionario doktoreak 6 ordezkari.

Gainerako irakasle eta ikertzaileak 3 ordezkari.

Ikasleak 3 ordezkari.

rarse en el plazo de nueve meses, (el plazo concluye el 11 de abril del año 2003), y posteriormente someterse al control de legalidad de la Comunidad Autónoma.

El Procedimiento que se propone, parte de aquellas disposiciones del Reglamento del Claustro que en materia de reforma estatutaria, pudieran ser de aplicación.

Según el esquema del Reglamento de Funcionamiento del Claustro, uno de los posibles órganos que puede instar la reforma de los Estatutos es el Rector, que elabora un borrador que debe ser remitido a todos los miembros Claustrales. Estos en un plazo mínimo de 15 días pueden presentar enmiendas ante una Comisión del Claustro. Esa Comisión examina las enmiendas, pudiendo incorporarlas al texto, o rechazarlas por una mayoría cualificada, y aquellas que no hayan sido rechazadas ni incorporadas, pasarlas al pleno del Claustro para su debate.

Siguiendo este esquema se articula el siguiente Procedimiento para la elaboración y aprobación de los Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

*Artículo 1.–* Órganos que participan en la elaboración de los Estatutos

1.1.– La Ponencia Técnica

Está constituida por su Presidente, que será el Rector o persona en quien delegue de entre los funcionarios doctores de los cuerpos docentes universitarios miembros del Claustro, más, al menos, seis personas todas ellas designadas libremente por el Rector, entre quienes se encontrarán representados todos los sectores y los tres Campus de la UPV / EHU.

Se trata de un órgano técnico que debe de cumplir dos funciones:

a) una función activa, de elaboración del primer borrador de Estatutos.

b) una función de informe durante todo el proceso de elaboración de Estatutos, a las distintas instancias decisorias.

Todos los servicios, instancias y órganos de la UPV / EHU tienen obligación de colaborar con la Ponencia.

1.2.– La Comisión de estatutos

Es una comisión delegada del Claustro y tiene una función decisoria en la fase inicial de elaboración de los Estatutos.

Esta Comisión tendrá en total 15 miembros, con representación de todos los Colectivos del Claustro:

6 representantes de Funcionarios doctores de los cuerpos docentes universitarios.

3 representantes de Otro personal docente e investigador.

3 representantes de Alumnos.

Administrazio eta zerbitzuetako langileak 2 ordezkari.

Batzordeak, Klaustroko kideen artetik, batzordeburua proposatuko dio errektoreari, eta batzordeburuak eta aukeratutako gainerako hamalau kideek osatuko dute Batzordea.

Batzordea Klaustroko kideek aukeratuko dute. Sektore bakoitzak hautagai-zerrenda itxi eta ordenatuak aurkeztuko dizkio Klaustroko Mahaiari. Hautagai-zerrenda horiek modu honetara aurkeztuko dira:

Unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionario doktoreen ordezkariak: hautagai-zerrendak hiru postu bete beharko ditu, gutxienez, eta hautagai guztien sinadurak agertu beharko dira. Hautagai izateko nahitaezkoa da klaustrokidea izatea.

Gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkariak: hautagai-zerrendak bi postu bete beharko ditu, gutxienez, eta hautagaien sinadurak agertu beharko dira. Hautagai izateko nahitaezkoa da klaustrokidea izatea.

AZPkoen ordezkariak: hautagai-zerrendak postu bat bete beharko du, gutxienez, eta hautagai guztien sinadurak agertu beharko dira. Hautagai izateko nahitaezkoa da klaustrokidea izatea.

Ikasleen ordezkariak: hautagai-zerrendak campuska egituratuko dira. Campus bakoitzeko postu bat bete beharko du, eta hautagai guztien sinadurak agertu beharko dira. Hautagai izateko nahitaezkoa da kasuan kasuko campuseko klaustrokidea izatea.

Hautagai-zerrendetan ordezkoak ere agertu ahal izango dira, sektore bakoitzean bete beharreko postuak beste.

Estatutuen batzordea aukeratzeko Klaustroaren bilera baino 48 ordu lehenago aurkeztuko dira hautagai-zerrendak, Idazkaritza Nagusian bertan zein faxez.

Hondar handienaren sistema proportzionalari jarraiki zenbatuko dira botoak.

1.3.– Bulego teknikoa

Gorago aipatu diren talde teknikoaren eta batzordearen bulego teknikoa unibertsitateko Idazkaritza Nagusia izango da, laguntza eskainiko baitie Estatutuak egiteko prozesuan (informazioa bilatu, administrazio-gestioa aurrera eraman, eta lege-aholkuak eman).

*2. artikulua.*– Estatutuen lehen zirriborroa idaztea

Lana aurrera eramateko prozedura Klaustroak uztailean egingo duen bileran onartu ondoren, errektoreak talde teknikoko kideak eta, behar izanez gero, burua izendatuko ditu.

Talde teknikoak Estatutuen zirriborroa egingo du, honako hauek kontuan hartuta: araudi autonomoa izan behar da, unibertsitateak duen autonomiaren esparruan xedatzeko gaitasun zabala ematen duena. Horrela, bada, Estatutuen zirriborroak UPV / EHUk bere fun-

2 representantes del Personal de Administración y Servicios.

La Comisión propondrá al Rector el nombramiento de un Presidente de entre los Claustrales, que junto a los catorce miembros elegidos completarán la Comisión.

Esta Comisión será elegida por los miembros del Claustro para lo cual cada uno de los sectores deberá presentar candidaturas cerradas y ordenadas dirigidas a la Mesa del Claustro. Las candidaturas deberán presentarse de la siguiente manera:

Representantes de Funcionarios doctores de los cuerpos docentes universitarios: La candidatura deberá cubrir, al menos, tres puestos e ir firmada por todos los candidatos. Para ser candidato es necesario ostentar la condición de claustral.

Representantes de otro personal docente e investigador: La candidatura deberá cubrir, al menos, dos puestos e ir firmada por los candidatos. Para ser candidato es necesario ostentar la condición de claustral.

Representantes de PAS: La candidatura deberá cubrir, al menos, un puesto e ir firmada por los candidatos. Para ser candidato es necesario ostentar la condición de claustral.

Representantes de alumnos: Las candidaturas deberán ser por Campus, cubriendo 1 puesto para cada Campus e ir firmada por los candidatos. Para ser candidato es necesario ostentar la condición de claustral del Campus correspondiente.

Las candidaturas podrán contener tantos suplentes como puestos a cubrir exista en cada uno de los sectores.

Las candidaturas deberán presentarse con 48 horas de antelación a la celebración del Claustro de elección en la Secretaría General directamente o por FAX.

El Cómputo de votos se hará siguiendo el sistema proporcional de resto mayor.

1.3.– La Oficina Técnica

Durante todo el proceso de elaboración de los Estatutos la Secretaría General de la Universidad actuará de Oficina Técnica, desarrollando labores de apoyo (búsqueda de información, gestión administrativa, asesoramiento jurídico) para la Ponencia y para la Comisión.

***Artículo 2.***– Redacción del borrador inicial de Estatutos

Una vez celebrado el Claustro de julio en el que se apruebe el procedimiento a seguir, el Rector designará a los miembros de la Ponencia y a su presidente, si ha lugar.

La Ponencia, deberá redactar un borrador de Estatutos, teniendo como punto de partida la consideración de los mismos como reglamento autónomo, lo que significa una amplia capacidad dispositiva dentro del marco de la autonomía universitaria. En esta línea, el bo-

tzioak betetzeko beharrezko dituen oinarrizko arauak garatuko ditu.

Testua urriaren 22a baino lehen egin beharko dute, eta Estatutuen Batzordeak osatutako testuari buruzko iritzia emango du. Batzorde horrek onartutako testua azaroaren 22a baino lehen bidaliko zaie klaustrokide guztiei.

Era berean, Batzordeak UPV / EHUko hiru campusetara ere bidaliko du zirriborroa, unibertsitateko kide guztiek izan dezaten horren berri.

***3. artikulua.***– Zuzenketak

3.1.– Zuzenketak aurkeztea

Klaustrokideek 2002ko abenduaren 10era arteko epea izango dute proposatuko zaien testuari egin nahi dizkioten zuzenketak aurkezteko.

Estatutuen batzordeko buruari zuzendutako idatziaren bidez baino ezingo dira aurkeztu zuzenketok, unibertsitateko Erregistro Orokorraren edozein bulegotan.

3.2.– Zuzenketa-motak

Zuzenketak bi motatakoak izango dira: osoko zuzenketak, ordezko testua proposatuta; eta artikuluei egindako zuzenketak.

Hauek izango dira osoko zuzenketak: Estatutuen zirriborroari dagozkion printzipioez edo izpirituaz ariko direnak, eta zirriborroa ordezkatzeko testu osoa proposatuko dutenak.

Artikuluei egindako zuzenketak, berriz, artikuluak gehitu, aldatu edo kentzeko izango dira. Estatutuak egiteko prozeduraren barruan, honako hauek hartuko dira artikulutzat: xedapen gehigarriak, azkenak, indargabetzaileak eta iragankorrak; Estatutuetako tituluak; sistematizatuta dauden atalen izenburuak; antolamendu sistematikoa bera; eta hitzaurrea, baldin badago.

3.3.– Zuzenketak onartzea

Estatutuen batzordeak epe barruan eta behar bezala aurkeztutako zuzenketak onartuko ditu, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Osoko zuzenketak

1.– Justifikatu egin beharko dira, eta ordezko testu osoa aurkeztu.

2.– Gutxienez 50 klaustrokidek sinatuko du zuzenketa bakoitza.

3.– Zuzenketa Klaustroan nortzuek defendatuko duten jakinaraziko da.

b) Artikuluei egindako zuzenketak

1.– Zein artikulu zuzendu nahi den adieraziko da (eta epigrafea, bat baino gehiago egonez gero).

rrador de Estatutos desarrollará las normas básicas para que la UPV / EHU pueda llevar a cabo sus funciones.

Este texto tendrá que estar terminado antes del día 22 de octubre y será sometido a la consideración de la Comisión de Estatutos. El texto aprobado por la Comisión de Estatutos será remitido antes del 22 de noviembre a todos los miembros del Claustro.

Además de remitirlo a los Claustrales, la Comisión presentará el borrador de Estatutos en los tres Campus de la UPV / EHU, a fin de que sea conocido por el conjunto de la Comunidad Universitaria.

***Artículo 3.***– De las enmiendas

3.1.– Presentación de enmiendas

Hasta el 10 de diciembre de 2002 los miembros del Claustro podrán presentar enmiendas al texto propuesto.

Las enmiendas se presentarán únicamente mediante escrito dirigido al Presidente de la Comisión de Estatutos, que deberá ser presentado en cualquiera de los Registros Generales de la Universidad.

3.2.– Clases de enmiendas

Las enmiendas podrán ser a la totalidad con la presentación de un texto alternativo o, enmiendas al articulado.

Serán enmiendas a la totalidad las que versen sobre los principios o el espíritu del borrador de Estatutos y propongan un texto completo alternativo al del borrador.

Las enmiendas al articulado podrán ser de adicción, de modificación o de supresión. A los efectos del procedimiento de elaboración de los Estatutos, cada disposición adicional, final, derogatoria o transitoria tendrán la consideración de un artículo, al igual que el Título de los Estatutos, las rúbricas de las distintas partes en que estén sistematizados, la propia ordenación sistemática y el preámbulo si lo hubiere.

3.3.– Admisión de enmiendas

La Comisión de Estatutos admitirá aquellas enmiendas que presentadas en tiempo y forma cumplan los siguientes requisitos:

a) Enmiendas a la totalidad

1.– Adjunten su justificación y acompañen el texto articulado completo alternativo.

2.– Contengan un mínimo de 50 avales de miembros del Claustro.

3.– Indiquen la persona o personas, que defenderá la enmienda en el Claustro.

b) Enmiendas al articulado

1.– Indiquen el artículo enmendado (y su epígrafe correspondiente si tuviera más de uno).

2.– Zuzenketa justifikatu egin beharko da.

3.– Ordezko testua aurkeztuko da, halakorik badago.

4.– Gutxienez 25 klaustrokidek sinatuko du zuzenketa bakoitza.

5.– Zuzenketa Klaustroan nortzuek defendatuko duten jakinaraziko da.

Aurkeztuko diren zuzenketak talde teknikoak antolatu eta aztertuko ditu, eta zuzenketen artean kontraesanik dagoen ikusiko. Eta horren berri emango dio Estatutuen batzordeari, erabakia har dezan.

*4. artikulua.*– Osoko zuzenketak eztabaidatu eta botoa ematea

Osoko zuzenketak aurkezten badira, Klaustroak ezohiko bilera egingo du «Osoko zuzenketak eztabaidatu eta botoa ematea» izeneko gai bakarra aztertzeko. Zuzenketak aurkezteko epea bukatu eta, gehienez ere, hamabost egunera egingo da bilera hori.

Osoko zuzenketa bat baino gehiago aurkezten bada, Estatutuen batzordeak erabakiko du zein ordenatan ariko diren ordezko testua defendatuko duten klaustrokideak.

Aldeko txanda bat eta aurkako beste bat izango du osoko zuzenketa bakoitzak. Zuzenketa aurkeztu dutenek aukeratuko dute zuzenketaren defentsa egingo duen pertsona, eta horri Estatutuen batzordeko buruak izendatuko duen batzordekideak erantzungo dio.

Testu itxiak izango dira, eta ezingo dira aldatu bileran zehar. Dena dela, osoko zuzenketak onartzen badira, zuzenketak egin ahal izango zaizkie artikuluei ere, onartutako prozedurari jarraiki.

Osoko zuzenketa bakarra aurkezten bada, onartu egingo da baldin eta klaustrokideen gehiengo absolutua alde azaltzen bada.

Osoko zuzenketa bat baino gehiago aurkezten bada, denak batera bozkatuko dira baina zuzenketa bakarrari eman ahal izango diote botoa klaustrokideek. Klaustrokideen gehiengo absolutua zuzenketaren baten alde azaltzen bada, onartu egingo da. Lehen bozketa egin eta zuzenketa batek ere ez badu lortzen klaustrokideen gehiengo absolutua, bigarren bozketa egingo da; baina lehen bozketan boto gehien lortu dituen zuzenketari buruzko iritzia baino ez du eman beharko Klaustroak bigarren botazioan, osoko beste zuzenketa guztiak bertan behera geratuko direlako.

Osoko zuzenketaren bat onartzen bada beste epe bat irekiko da, onartutako testuko artikuluei buruzko zuzenketak aurkezteko.

*5. artikulua.*– Estatutuen behin betiko zirriborroa onartzea

2.– Adjunten la justificación motivada de la enmienda.

3.– Incluyan el texto alternativo propuesto, si lo hubiere.

4.– Contengan un mínimo de 25 avales de miembros del Claustro.

5.– Indiquen la persona o personas, que defenderá, en su caso, en el Claustro la enmienda.

La Ponencia ordenará e informará las enmiendas presentadas, así como la posibilidad de contradicción entre varias, lo que elevará a la Comisión de Estatutos para su decisión.

*Artículo 4.*– Debate y votación de las enmiendas a la totalidad

Presentada una o varias enmiendas a la totalidad, en un plazo máximo de 15 días contados a partir del de finalización del plazo para la presentación de enmiendas, se realizará una convocatoria Extraordinaria del Claustro con el único punto en su Orden del Día, de «Debate y votación de las enmiendas a la totalidad».

La Comisión de Estatutos decidirá el orden en el que intervendrán, en el caso de presentarse varias enmiendas, los claustrales que defenderán el Texto alternativo presentado.

Cada enmienda a la totalidad tendrá un único turno a favor y en contra. Los enmendantes designarán la persona que realizará la defensa de la enmienda, siendo replicado por el miembro de la Comisión que designe su Presidente.

Los textos serán cerrados, y no habrá posibilidad de modificación a lo largo de la sesión sin perjuicio de que de resultar aprobados, sea objeto de enmiendas al articulado de acuerdo con el Procedimiento.

En el caso de que sólo hubiera una única enmienda a la totalidad, esta resultará aprobada si obtiene la mayoría absoluta de los miembros del Claustro proclamados.

Si hubiera varias enmiendas, estas se votarán conjuntamente, pudiendo cada miembro del Claustro dar su voto a una única enmienda. Si alguna de ellas obtuviera la mayoría absoluta de miembros del Claustro, resultará aprobada. Si en la primera votación ninguna de ellas obtuviese la mayoría absoluta de miembros del Claustro, se realizará una segunda votación en la que únicamente se someterá a la consideración del Claustro la enmienda que en la primera votación hubiera obtenido el mayor número de votos, entendiéndose rechazadas las demás enmiendas a la totalidad.

Si el Claustro aprobase una enmienda a la totalidad, se abrirá un nuevo plazo de presentación de enmiendas, que sólo podrán formularse sobre el articulado de la misma.

*Artículo 5.*– De la aprobación del borrador definitivo de Estatutos

5.1.– Artikuluei egindako zuzenketak aztertzea

Artikuluei egindako zuzenketak Estatutuen batzordeak aztertuko ditu eta testuan sartzea erabaki dezake, edo bertan behera uztea batzordeko 10 kidek behintzat horrela erabakitzen badute (kideen 2/3); testuan sartuko ez diren eta bertan behera utziko ez diren zuzenketak, berriz, Klaustroak eztabaidatuko ditu osoko bilkuran, eta, hala badagokio, onartu egingo ditu.

5.2.– Estatutuen aurreproiektua bidaltzea

Batzordeak martxoaren 14rako aztertuko ditu zuzenketa guztiak eta egun horretatik aurrera bidaliko zaizkie Estatutuen aurreproiektua eta osoko bilkuran aztertu beharko diren zuzenketak klaustrokide guztiei, azter ditzaten.

Estatutuak onartzeko Klaustrorako deialdia ere aurreproiektuarekin batera bidaliko da. 2003ko apirilaren lehen egunetan hasiko beharko da Klaustro hori.

*6. artikulua.*– Estatutuak onartuko dituen Klaustroa

6.1.– Estatutuak onartuko dituen Klaustroko bilerarako deia

Deialdia ezohiko bilerarako izango da eta gai bakarra aztertuko da bertan: UPV / EHUko Estatutuak onartzea.

6.2.– Artikuluei egindako zuzenketak eztabaidatu eta onartzea

Artikulu berari egindako zuzenketak eztabaidatzeko, kontuan hartuko da zenbat aldentzen den zuzenketa testutik. Hau da, testutik gehien aldentzen den zuzenketaren bozketa egingo da lehendabizi, eta irizpide horri jarraiki beste guztiak. Kontraesanean dauden zuzenketetatik bat onartzen bada, beste guztiak bertan behera geratuko dira. Batzordeak antolatuko ditu artikulu bakoitzari egindako zuzenketak, aipaturiko irizpideen arabera.

Hurbiltze-testuak eta aldaketa teknikoak edo estilokoak proposatu ahal izango dira eztabaidan zehar, eta zuzenketak proposatu dituztenek horiek bertan behera utzi edo aldatzeko aukera izango dute.

Zuzenketen gainean aritzeko txanda bakarra izango da. Batzordeko buruak, edo berak izendatuko duen pertsonak, zuzenketari erantzuteko txanda izango du eta, ondoren, bozketa egingo da.

Klaustrokideen gehiengo absolutuak ontzat emandako zuzenketak Estatutuen testuan sartuko dira.

6.3.– Estatutuen behin betiko testua onartzea

Artikuluei egindako zuzenketak eztabaidatu eta botoa eman ondoren, testu osoari buruzko iritzia adierazi beharko da. Testu osoa onartzeko Klaustroaren gehiengo osoak eman beharko du aldeko botoa.

5.1.– Estudio de las enmiendas al articulado

La Comisión de Estatutos estudiará las enmiendas al articulado que se hayan presentado y decidirá la incorporación al texto, o su rechazo, por un mínimo de 10 miembros de la Comisión(2/3 de los miembros). Aquellas enmiendas al articulado que no fueran incorporadas ni rechazadas pasaran al pleno del Claustro para su debate y aprobación en su caso.

5.2.– Remisión del Anteproyecto de Estatutos

La Comisión deberá tener terminado este análisis para el 14 de marzo, fecha a partir de la cual se remitirá el Anteproyecto de Estatutos, junto con las enmiendas que se debatirán en el pleno, a todos los miembros del Claustro para su estudio.

Junto con la remisión del anteproyecto se enviará también la convocatoria para el Claustro de aprobación de los Estatutos, que deberá comenzar durante los primeros días de abril de 2003.

*Artículo 6.*– Del Claustro de aprobación de los Estatutos

6.1.– Convocatoria de la Sesión del Claustro de aprobación de Estatutos.

Esta convocatoria, que será para una sesión extraordinaria, tendrá un único punto en el orden del día: Aprobación de los Estatutos de la UPV / EHU.

6.2.– Debate y aprobación de las enmiendas al articulado.

El debate de enmiendas a un mismo artículo se realizará teniendo en cuenta la discrepancia de contenido con el texto presentado. Se votará en primer lugar la enmienda que más discrepe, y así sucesivamente. Si prosperase alguna enmienda entre varias excluyentes se considerarán rechazadas sus contrarias. Es competencia de la Comisión ordenar las enmiendas a cada artículo en aplicación de los anteriores criterios.

En el curso del debate se podrán proponer textos de acercamiento y correcciones técnicas o de estilo, pudiendo las enmiendas ser retiradas o modificadas por sus proponentes.

Las enmiendas darán lugar a un único turno de intervención. El presidente de la comisión, o persona que él designe tendrá derecho a un turno de contestación a la enmienda, tras el cual se procederá a la votación.

Las enmiendas aprobadas por mayoría absoluta de miembros quedarán incorporadas en el texto de los Estatutos.

6.3.– Aprobación del texto definitivo de los Estatutos.

Acabada la discusión y votación de todas las enmiendas presentadas al articulado, se someterá a aprobación la totalidad del texto que resultará aprobado si obtiene el voto favorable de la mayoría absoluta del Claustro.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

LOUk zehazten duenez unibertsitateko Klaustroa nola osatu behar den, Klaustroaren funtzionamendurako arautegiko 10. artikuluko laugarren paragrafoa honela geratzen da:

«Ausentzia, eritasun edo justifikagarria den beste edozein kasutan, unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionario doktore klaustrokideen artetik errektoreak izendatuko duenak ordezkatuko du mahaiburua; mahaikideak euren ordezkoek; eta idazkari nagusia unibertsitateko gerenteak.»

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Arautegi honetan jaso ez den guztirako Klaustroaren funtzionamendurako arautegia izango da aplikagarri.

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

Dada la nueva composición que del Claustro de la Universidad establece la LOU el artículo 10 del Reglamento de Funcionamiento del Claustro en su párrafo 4 pasa a tener la siguiente redacción:

«Por ausencia, enfermedad o por cualquier otra causa general que lo justifique, el Presidente será sustituido por uno de los miembros del Claustro perteneciente al Sector de Funcionarios Doctores de los Cuerpos Docentes Universitarios que el Rector designe, los miembros de la Mesa por sus suplentes, y el Secretario General por el Gerente de la Universidad.»

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

En todo lo no regulado por este Reglamento será de aplicación el Reglamento de Funcionamiento del Claustro.

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ESTATUTUAK EGITEKO PROZEDURARI BURUZKO ARAUTEGIAREN ERANSKINA

ESTATUTUAK EGITEKO EGUTEGIA

| | |
|---|---|
| Estatutuen Batzordea aukeratzeko Klaustroa | 2002ko urriaren 22a |
| Estatutuen zirriborroa bidaltzea | 2002ko azaroaren 22a |
| Osoko zuzenketak aurkeztea | 2002ko abenduaren 10era arte |
| Osoko zuzenketarik aurkezten bada: | |
| Osoko zuzenketak bidaltzea | 2002ko abenduaren 13a |
| Osoko zuzenketak eztabaidatzeko Klaustroa | 2003ko urtarrilaren 14a |
| Ez badu aurrera egiten osoko zuzenketak: | |
| testu berriko artikuluei zuzenketak aurkezteko epea | 2003ko urtarrilaren 31ra arte |
| Osoko zuzenketarik aurkezten ez bada: | |
| Artikuluei zuzenketak aurkezteko epea | 2003ko urtarrilaren 31ra arte |
| Zuzenketei buruzko txostena | 2003ko otsailaren 14ra arte |
| Zuzenketak aztertzea | 2003ko martxoaren 14ra arte |
| Aurreproiektua aztertzea | 2003ko martxoaren 19tik aurrera |
| Botoa emateko Klaustroa | 2003ko apirilaren 8a |

*ANEXO AL REGLAMENTO SOBRE PROCEDIMIENTO PARA LA ELABORACIÓN DE ESTATUTOS DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA*

*CALENDARIO PARA LA ELABORACIÓN DE LOS ESTATUTOS*

| | |
|---|---|
| *Claustro de Elección de la Comisión de Estatutos* | *22 de octubre de 2002* |
| *Remisión Borrador Estatutos* | *22 de noviembre de 2002* |
| *Presentación de enmiendas a la totalidad* | *hasta el 10 de diciembre de 2002.* |
| *Si se presentan enmiendas a la totalidad* | |
| *Remisión de enmiendas a la totalidad* | *13 de diciembre de 2002* |
| *Claustro de debate enmiendas a la totalidad* | *14 de enero de 2003* |
| *Si prospera enmienda a la totalidad: Plazo de presentación de enmiendas al articulado del nuevo texto* | *hasta 31 de enero de 2003* |
| *Si no se presentan enmiendas a la totalidad* | |
| *Plazo de presentación de enmiendas al Articulado* | *hasta 31 de enero de 2003* |
| *Informe de las enmiendas* | *hasta el 14 de febrero de 2003.* |
| *Examen de las enmiendas* | *hasta el 14 de marzo de 2003* |
| *Estudio del Anteproyecto* | *a partir de 19 de marzo de 2003* |
| *Claustro de Votación* | *8 de abril de 2003* |

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### Zk-5785

EBAZPENA, 2002ko uztailaren 16koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, «Zuzenbide Zibilia» jakintza-arloko unibertsitateko irakasle titularren plaza bat betetzeko lehiaketa ebatzi behar duen batzordearen osaketa argitaratzeko dena. Plaza horretarako deialdia 2001eko irailaren 28ko Ebazpenaren bidez egin zen (urriaren 18ko «Estatuko Buletin Ofiziala»).

Ekainaren 13ko 1427/1984 Errege Dekretuaren 6.8. artikuluan adierazitakoa betez (uztailaren 11ko «Estatuko Buletin Ofiziala»), «Zuzenbide Zibilia» jakintzaarloko unibertsitateko irakasle titularren plaza bat betetzeko lehiaketa ebatzi behar duen batzordearen osaketa argitaratzen du Errektoregoak. Plaza horretarako

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

### N°-5785

RESOLUCIÓN de 16 de julio de 2002, de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se publica la composición de la Comisión Calificadora para la provisión de una plaza de Profesor Titular de Universidad del área de conocimiento «Derecho Civil», convocada por Resolución de 28 de septiembre de 2001 («Boletín Oficial del Estado» de 18 de octubre).

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 6.º. 8, del Real Decreto 1427/1984, de 13 de junio («Boletín Oficial del Estado» de 11 de julio), este Rectorado dispone hacer pública la composición de la Comisión Calificadora que ha de resolver el concurso para la provisión de una plaza de Profesor Titular de Univer-